getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1887 zk.
www.getxo.eus

Azaroak 5 >> Azaroak 15 | 2026

/ Nabarmentzekoak

> Jarduerak A25a dela eta (2. or.)

> "Herentzia", familia traumei buruzko thriller psikologiko tirabiratsu eta hipnotikoa (3. or.)

> Getxok tokiko talentua eta kultur jarduera omenduko ditu AixeGetxo! sarien hamaseigarren edizioan (4. or.)



*"Ramiro Pinilla" eleberri laburren lehiaketak hamargarren urteurrena ospatuko du (4. or.)

A- GENDA

Dantza. Hilak 14, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "A.I. (Amalur Indarra)", Lucía Lacarraren Balletarekin. 20 euro.

Haur ikuskizuna. Hilak 15, igandea, 18:00etan, Muxikebarrin, "Bidutzi" (euskaraz), Benetan Be taldearekin. 3 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

ETE, gurutzaontzi eta apartamentu turistikoetan gehieneko karga zergapetuko da

Udal Gobernuaren (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta Elkarrekin Podemosen akordioa, zerga turistikoa arautzen duen ordenantza behin-behinean onartzeko

Udal Gobernua (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta Elkarrekin Podemos-EP akordio batera iritsi dira Getxoko Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala behin-behinean onartzeko, pasa den ostegunean, urriaren 29an, egindako ohiko osoko bilkuran. Saioa minutu bateko isilunearekin hasi zen, iragan astean Urdan (Toledo) izandako tren istripuaren biktimengatik.



Akordio horren ondorioz, egonaldi turistikoen gaineko zerga maximoa izango da erabilera turistikoko etxebizitzetarako (ETE), gurutzaontzietarako eta apartamentu turistikoetarako. Hotelen kasuan, maila bakoitzerako gutxienekoa ezartzen da.
Puntuak PPren aurkako bozka eta EH-Bilduren abstentzioa jaso zituen. Azken honek hiru zuzenketa aurkeztu zituen, eta atzera bota ziren.

Eztabaidari dagokionez, EAJ/PNV, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos bat etorri ziren, honako hau azpimarratuz: "*ordenantza hiru indarren arteko akordio batetik abiatzen da, landuta dago eta Getxoko errealitatera egokitzen da. Zerga-karga handiena erabilera turistikoko etxebizitzek eta gurutzaontziek dute, horiek baitira Getxon inpaktu handiena duten biak. Getxotarrentzako eta haien seme-alabentzako etxebizitza zaintzen duen ordenantza bat da, zerbitzuen eta udal-ingurunearen gainean presio handiena egiten duten modalitateetan (gurutzaontziak) ekarpen handiagoa ezartzen duena, eta Getxoko jarduera ekonomikoa eta enplegua babestea bilatzen duena, hotelak zigortu gabe, proposamen progresiboa baita (zenbat eta izar gehiago zerga altuagoa)*".

EH-Bilduk, besteak beste, 4 eta 5 izarreko hotelei gehienezko tasa aplikatzea planteatu zuen, "*kategoria edo prezio handiagoko establezimenduetan ostatu hartzen duten pertsonak gehiago lagundu dezaten*", eta errekargua %10etik %50era igotzea, "*udal zerbitzuetan eta espazio publikoaren erabileran turismo jarduerak sortzen dituen beharretarako baliabideak izateko*".

ESTABLEZIMENDU MOTA	KARGA-TASA (euroak egonaldi-unitate bakoitzeko)
a) Turismo-establezimenduak	
5 izarreko hotelak edo kategoria baliokidea	4,50 €
4 izarreko hotelak edo kategoria baliokidea	3,50 €
3 izarreko hotelak edo kategoria baliokidea	1,50 €
2 izarreko hotelak edo kategoria baliokidea	1 €
Izar 1eko hotelak edo kategoria baliokidea	0,75 €
Ostatuak	0,75 €
Apartamentu turistikoak	3,50 €
Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk	0,75 €
Nekazaritza-turismoko etxeak	0,50 €
Landetxeak	0,75 €
Aterpeak	0,75 €
Turismo-ostatuen beste establezimendu batzuk	1,50 €
b) Erabilera turistikoko etxebizitzak (ETE)	
Oso-osorik utzitakoak	6,50 €
Gelaka	6,50 €
c) Gurutzaldi turistikoko ontziak	7 €

Gainera, Foru Arauak udalerriei %50erainoko errekargua baimentzen dienez ostatu plazen kopurua 750 edo gehiagokoa denean, Getxoren kasuan bezala, zerga kuotaren gaineko %10eko errekargua ezarri zaio taula osoari.

Alderdi Popularrak aurka bozkatu zuen, "*turismoa ez delako fiskalki zigortu behar den arazo bat, aukera bat baizik; zerga karga berriak turistak uxatu eta udalerriko lehiakortasuna kaltetu dezake, neurri batean bisitarien etorreraren mende dauden negozioei, hotelei, ostalaritzari... eragiten dielako. Zergetara jotzen da baliabide publikoak hobeto kudeatu beharrean*".

Beste gai batzuk

Bestalde, aho batez onartu zen 15.000 euroko kreditu gehigarria Ibar Nagusien Etxea Elkartearen zahartze aktiboko programarako; eta beste bi kreditu gehigarriren berri eman zen: 907.000 euro Faduriko kirol instalazioetako argiztapen lanetarako (futbol zelaia, atletismo pista eta barruko espazioa eta erabilera anitzeko zelaia) eta 30.000 euro zuzeneko dirulaguntza gisa, Garapenerako Lankidetzaren partidaren barruan, Venezuelan eta Kolonbian aurten jasandako lurrikarengatik izandako krisi humanitarioari aurre egiteko.

Mozioak

Mozioen atalean, Elkarrekin Podemosek aurkeztutako biak onartu ziren, lekukotza gisa. Lehenengoak etorkizunean sortuko diren parkeetan material naturalen lurzoruak instalatzea eskatzen zuen (material natural bakoitzaren alde onak eta txarrak, formak eta mantentze lanen kostuak aztertu ondoren), baita udalerrian dauden isuritako kautxuzko lurzoruak ordezkatzeko plan bat egitea ere. Eta bigarrena, Kirol Portuko zinemen jarraipena defendatzea eta Kirol Portuaren birdiseinuak herritarrei eta getxotarrei zuzendutako erabilerak lehenestea, beren jolas eta kirol eskaintzari dagokionez, Getxo Arraun eta Getxo Bela Eskolako instalazioak barne.

A- GENDA

AZAROAK 5 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Paul Urkijoren "Gaua" (euskaraz). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Erakusketa. Pepa Sada eta Pilar Lopezen akuarelen erakusketa, Algortako Batzoki Tabernan. Abenduaren 15era arte.

AZAROAK 6 OSTIRALA

Erakusketa. Getxoarte Beka 2026. Azaroaren 26ra arte, Romo Kultur Etxean, Julen Etxebarriaren "El tercer paisaje II" erakusketa. Ordutegia: 08:30-21:30 (astelehenetik ostiralera) eta 09:30-20:30 h (asteburuetan). **Bisita gidatua eta familia-tailerra.** Hilak 21, larunbata, 17:30etik a 19:30era.

San Martin jaiak-Hezetasuna. Egitaraua: https://labur.eus/nwvuizsm (ikus 4. or.)

Auzoka. 17:00etatik 20:00etara, Santa Eugenia plazan **Jolas zirkua**, eta Aldapa parkean, **Antzerkia.** Euskaraz, 6-11 urte. Dohainik.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Interview. Tentazioa" (euskakaz). 12 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Romo Kultur Etxean, Kleber Mendoçaren "El agente secreto" (JBA). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

AZAROAK 7 LARUNBATA

San Martin jaiak-Hezetasuna. Egitaraua: https://labur.eus/nwvuizsm (ikus 4. or.)

Rol eta mahaiko jokoak. Post mortem Kimera. Romo Kultur Etxean, 11:00etatik 20:30era. Antolatzailea: Kimera elkartea. @asociacionkimera

Dantza plaza. 19:30ean, San Nikolas Ikastolan, herri-erromeria bertako taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Herentzia" (euskaraz), Kulunka Teatrorekin. 18 euro.

AZAROAK 8 IGANDEA

San Martin jaiak-Hezetasuna. Egitaraua: https://labur.eus/nwvuizsm (ikus 4. or.)

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Little Amélie" (euskaraz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Jirafa" (gazteleraz), Thomas Noone Dancerekin. 3 urtetik gorakoentzat. 6 euro.

AZAROAK 9 ASTELEHENA

Rastrillo solidario. Erromo San Jose parrokian. Astelehenetik larunbatera, 11:00-13:30 eta 17:00-20:00. Igandean: 11:00-14:00. Antolatzailea: Gizatiar.

AZAROAK 10 ASTEARTEA

Bigarren Eskuko Liburuaren 20. Azoka Solidaioa. Azaroaren 15era arte, Romo Kultur Etxean. Ordutegia: 11:00-14:00 h eta 17:00-21:00 h (igandean 14:00ak arte). Sarrera dohainik.

Hitzaldia. 17:00etan, Urgull Zentroan (Algortan), "Sistema de arbitraje; así puedes solucionar tu problema de consumo". Hizlaria: Mikel Muñoz (EKA/ACUVeko abokatua). Antolatzailea: Organiza: udala, EKA/ACUVen laguntzarekin.

Aixe Getxo! 2026 Sariak. 19:00etan, Muxikebarrin, sari banaketa. Sarrera: Muxikebarrin zein Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

AZAROAK 12 OSTEGUNA

Literatura topaketa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Dormir fuera de casa" (gazteleraz), Paula Hoyos egilearekin. Sarrera dohainik.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Rodrigo Sorogoyeten "El ser querido" (gazteleraz). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

AZAROAK 13 OSTIRALA

Auzoka. 17:00etatik 20:00etara, Bizkaia Zubia plazan, "Zentzu bidaia", eta Malakate parkean, musika. 6-11 urtekoentzat, euskeraz. Doan.

Kontalarien Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Cómo nos reímos" (gazteleraz). Sarrera dohainik.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, Javier Figueroaren "El ventrílocuo" (gazteleraz). 12 euro.

AZAROAK 14 LARUNBATA

Ipar martxa. Irteera 10:00etan Algortako batzokitik, Getxotik ibiltzeko. Izena aldez aurretik eman behar da (hilak 13 baino lehenago) nw.itxartu@gmail.com-en Antolatzailea: Itxartu Mendi Taldea.

Ipuin kontaketa. Storytime. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Wesley Wimp" (ingelesez). 3-7 urte. Izen-ematea dohainik: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "A.I. (Amalur Indarra)", Lucía Lacarraren Balletarekin. 20 euro.

AZAROAK 15 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Evolution" (euskaraz). 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Bidutzi" (euskaraz), Benetan Be taldearekin. 3 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Joal Express, S.L.
Gordailu legala: BI-388-87

Jarduerak A25a dela eta

Azaroaren 9an *Hitza Bizi* jarduerak hasiera ipiniko dio Gurarin, azaroaren 25ean Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta Udalak urtero antolatzen duen egitarauari. Bertan, azaroaren 25aren inguruko esanahiak eta/edo aldarrikapenak aztertuko dituzte. Leku berean, hilaren 10etik 17ra, *Violencias Invisibles* izeneko erakusketa ikusi ahal izango da; hilaren 10ean eta 24an, sorkuntza artistikorako talde-espazio bat egongo da; eta azaroak 17, 16:00etan, 13 eta 18 urte bitarteko emakumeek hausnarketa prozesu batean hartuko dute parte (Algortako eta Romoko Gazelekuen laguntzarekin) *Aktiba zaitez!* lelopean. Hurrengo egunean, 18:00etan, *Fabricando Mujeres 2.0* dokumentala proiektatuko da, eta azaroaren 26an *Mujeres y psicofármacos: la medicalización de los malestares de las mujeres* izenburupeko hitzaldia izango da. Abenduaren 3an *Lolaren bizikleta* film laburra proiektatuko da. Bestalde, Udal liburutegiekin lankidetzan, irakurketa-proposamenak biltzen dituen gida bat egin da, Gurarin eta liburutegietan eskuragarri izango dena. Eta aurreko urteetan bezala, hainbat material dago eskuragarri udal egoitza batzuetan, pankartak jarriko dira eta Areetako kaiko pasealekua eta igogailu publikoak morez argiztatuko dira.

Irurak Bat auziari buruzko ebazpen judizial berria



Getxoko Epaitegiaren urriaren 29ko ebazpen judizial berri batek Irurak Bat eraikina eraisteagatik irekitako auzi penala artxibatzearen aurka aurkeztutako erreforma-errekurtsoak ezetsi egin ditu. Magistratuak berretsi egin du irailean hartutako erabakia, eta ondorioztatu du hirigintza-araudi aplikagarriak baimentzen zuela eraistea, ikertutako egitateak ez direla delitu eta ez dela beharrezkoa ikerketa gehiago egiten jarraitzea, ikertutako egitateak erabat egiaztatuta geratuko balira ere, ez litzatekeelako arau-hauste penala izango. Udalak adierazi du apelazio-errekurtsoek izapidetzen jarraitzen dutela eta, beraz, artxibatzeko erabakia auzitegi goren batek berrikusteko zain dagoela. Era berean, gardentasunarekin, independentzia judizialarekiko errespetuarekin eta herritarrek informazio egiazkoa eta egiaztatua jasotzeko duten eskubidearekin duten konpromisoa berresten du.



Immigrazio eta Kulturartekotasun Zerbitzuak sari bat jaso du RECI topaketan

Udaleko Immigrazio eta Kultur artekotasun Zerbitzuak *What the Fake* I. Zurrumurruen Aurkako Biurtekoaren saria jaso zuen aurreko ostegunean, urriak 29, Getxo Antirrazista udal programako Antzerki taldeagatik, *Herritarren Partaidetzarako Ekimena* - Inpaktua duten sareak kategorian. DIVERSIT elkarteak, RECI – Kultur arteko Hirien Estatuko Sarearen koordinatzaileak, antolatu du Bienala. Sare horretako kidea da Udala 2011az geroztik. Sari banaketa Iruñean izan zen, RECIren topaketaren barruan.

Getxo Lagunkoiaren inkesta

Zahartze Aktiboko Zerbitzuak inkesta bat argitaratu du herritarren hainbat ardatzen inguruko esperientziak eta ikuspuntuak ezagutzeko, besteak beste, aire zabaleko espazioei, garraioari, etxebizitzari, kirolari, aisialdiari eta Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, gero eta adin luzeagoko gizartearen zenbait gairi buruz hausnartu ahal izateko. Parte hartu nahi duten pertsonek inkesta bete dezakete hurrengo loturaren bidez: https://labur.eus/rf8shivo

Kontsumoari buruzko hitzaldi berri bat

Udalak, Euskal Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartearekin (EKA/ACUV) lankidetzan, beste informazio-hitzaldi bat antolatu du.

Oraingo honetan, azaroaren 10ean izango da, asteartea, 17:00etan, Urgull Zentroan, eta izenburu hau du: "Arbitraje-sistema: horrela konpon dezakezu zure kontsumo-arazoa". Hizlaria EKA/ACUVeko talde juridikoko Iñaki Velasco izango da.
Sarrera doakoa izango da.

Diru-laguntza Etorkinen Plataforma Federazioa elkartearentzat

Tokiko Gobernu Batzarrak 42.000 euroko urteko diru laguntza onartu du Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioa elkartearentzat.

Laguntza hori funtzionamendu-gastuei aurre egiteko izango da, eta baita elkartea osatzen duten edo osa dezaketen erakundeei laguntzeko eta aholkatzeko ere. Era berean, pertsona anitzen arteko topaguneetarako ere erabiliko da, prestakuntza jasotzeko, parte hartzen duten pertsonen autonomia hobetzeko, elkarbizitza eta inklusio positiboa bultzatzeko, eta estereotipoak desartikulatzeko ere.



“Herentzia”, familia traumei buruzko thriller psikologiko tirabiratsu eta hipnotikoa

Kulunka Teatrok *Herentzia* tragedia garaikidea antzeztuko du larunbatean, azaroak 7, Muxikebarrin. Thriller psikologikoko egitura du, eta familiako misterioak, oroimenaren pisua eta beldurraren indarra aztertzen ditu errealitatea desitxuratzeko.

Isidoro Fernandezek, Aizpea Goenagak, Garbiñe Insaustik eta Iñaki Rikartek egiten dute antzezlana, eta ikuslea bikote baten logelan kokatzen du, elkarrekin igaroko duten azken gauean, gertakari traumatiko bat jasan ondoren. Bidaia oniriko eta haluzinatu baten bidez, beren beldur, oroitzapen eta isiluneei aurre egingo diete. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da. Sarrera: 18 euro.

Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa

Azaroaren 10etik 15era, Romo Kultur Etxeak Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioaren edizio berri bat hartuko du, Getxoko Liburutegi Zerbitzuaren ekimena, Garapenerako Lankidetzaren udal arloarekin lankidetzan.

Bost egunetan zehar, publikoak gai askotako liburuak erosi ahal izango ditu bertan. Salmenta prezioak sinbolikoak izango dira: liburuek euro bat balioko dute; aldizkariek eta koadernotxoek, euro bat eta hiru ale; eta entziklopediek, liburu-kopuruaren arabera. Gainera, merkatuko azken egunean deskontuak egongo dira liburu-sorten erosketetan. Bildutako diru guztia lankidetza solidarioko eta gizarte-laguntzako proiektuetara bideratuko da.

Ordutegia, asteartetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara izango da. Igandean 11:00etatik 14:00etara.

Dantza ikuskizun familiarra, txotxongiloak eta proiekzio murgiltzaileak



Igande honetan, hilak 8, 18:00etatik aurrera, Thomas Noone Dance konpainiak *Jirafa* ikuskizuna eskainiko du Muxikebarrin, dantza, txotxongiloak eta proiekzio murgiltzaileak uztartzen dituen ikuskizun familiarra.
Dantzarako grina duen jirafa maitagarri baten istorio samur eta umoretsua kontatzen du. Oso baldarra izan arren, mugimenduaz gozatzen ikasten du, huts egiteko beldurrik gabe. Muntaketan argi estroboskopikoen erabilera sartzen da. Sarrerak 6 euro balio du.

Telmo Irureta aktorea “Interview” hunkigarri eta hurbilarekin dator



Telmo Irureta aktoreak Tentazioa Konpainiaren proposamen bat antzeztuko du ostiralean, hilak 6, 20:00etan, Muxikebarrin, *Interview*. 11:00etan, ikastetxeentzako saio bat egongo da.

Antzezlanak, euskaraz, *De agua y arena* film laburra du abiapuntu, antzezlearen bizi ibilbideari eta garuneko paralisiarekin duen bizikidetzari buruzko kontakizun intimo bat eskaintzeko, umoretik, hurbiltasunetik eta emoziotik abiatuta. Sarrera: 8 euro.

Bapiruke euskal egonaldiak Gabonetan

Bizarra Lepoan Euskara elkarteak, beste entitate batzuen artean Udalaren laguntzarekin, Bapiruke neguko euskal egonaldiak antolatu ditu, 2014 eta 2021 urte bitartean jaiotako umeentzat, Algortako J.B. Zabala eskolan. Koloniak abenduaren 23tik urtarrilaren 5era izango dira, 09:00etatik 13:30era eta txango egunetan (abenduak 29 eta urtarrilak 4) 9:00etatik 17:00etara.
Izen-ematea, azaroaren 11tik 13ra izango da, www.bizarralepoan.eus elkartearen webgunearen bidez. Elkarteko bazkideek lehentasuna edukiko dute eta guztientzako plazarik ez balego zozketaren bidez esleituko dira. Matrikula arrunta 75 eurokoa izango da, bazkideentzat 60 eurokoa eta murritza 35 eurokoa.



Carlos Nuñez gaitariak emango dio hasiera Negufest neguko jaialdiari

Carlos Núñez gaitari ospetsuak irekiko du urtarrilean eta otsailean Getxon egingo den Negufest 2027 neguko jaialdiaren programazioa. Kontzertua 2027ko urtarrilaren 8an izango da, ostirala, Muxikebarrin. Oraingoan, musikari galiziarrak *Celtic Beethoven* ikuskizuna aurkeztuko du, konpositore alemaniar ospetsuaren musika eta zelta kulturaren sustraiak eta instrumentu tradizionalak (gaitak, biolinak eta txirulak) uztartzen dituen proposamen originala. Sarrerak salgai daude eta 25 euroko prezioa dute. Hurrengo kontzertuak hauek izango dira: Rock en familia (urtarrilaren 24an), Wim Mertens (otsailaren 5ean) eta Violeta (otsailaren 12an).

“El tercer paisaje” erakusketa

Azaroaren 5etik 11ra, Romo Kultur Etxeak *El tercer paisaje (II)* erakusketa hartuko du, Getxoarte 2026 beka irabazi zuen Julen Etxebarriarena. Instalazio artistiko honek Omako Baso Margotuaren infekzio, mozketa eta birlandaketa prozesuak jorratzen ditu, onddoek eraldatutako 16 mm-ko filmen, jatorrizko basoa moztu ondoren berreskuratutako azal zatien eta zuri-beltzeko filmazioen bidez.
Info: https://labur.eus/qqivluvc



Getxok tokiko talentua eta kultura-jarduera omenduko ditu AixeGetxo! sarien hamaseigarren edizioan

Muxikebarrik AixeGetxo! sarien hamaseigarren edizioko sariak banatzeko ekitaldia hartuko du datorren asteartean, azaroak 10, 19:00etan. Hitzordu horretan, aurten ere, udalerriko kultur jarduerarekin lotutako 14 pertsona, kolektibo eta establezimenduren lana aitortuko da.

Udalak bultzatuta, Getxo Kulturaren bidez, sari hauek kultura bere zentzurik zabalenean aintzatestea eta balioestea, sektoreko artisten eta eragileen lana ikusaraztea eta herritarren parte-hartzea bultzatzea dute helburu.

AIXEGETXO! 2026	
Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteak	**Teresa Laviña.** Zinemagilea, Romoko eta Areetako memoria historikoari buruzko dokumentalen zuzendaria
Arte Plastikoak	**Olatz Otalora Landa.** Artista bisuala, Artium Museoaren eta Tabakaleraren JAI bezalako erreferentziazko proiektuetan parte hartu duena
Arte Eszenikoak	**Iñigo Iraultza "Iru".** La Pez konpainiako sortzaile, aktore eta zuzendaria, Umore Azokan hainbat aldiz saritua
Gaur Egungo Musika	**The Piper's Irish Pub.** Zuzeneko musikaren gune eta Algortako musika-eszenaren topagune gisa 25 urte bete dituen establezimendua
Musika Klasikoa eta Garaikidea	**Andoni Martínez Barañano.** Tenorea, Teatro Real eta Gran Teatre del Liceu bezalako agertokietan aritu dena
Literatura	**Federico Bilbao Solozabal.** Poeta, dozena bat poema-liburu baino gehiago argitaratu dituena
Diseinua	**Charo Álvarez.** Areetako bere tailerrean artisau-moduan jarduten den moda-diseinatzailea
Arkitektura eta espazio publikoa	**SOiL Arquitectura del Paisaje.** Getxon kokatutako estudioa ingurumenaren lehengoratzean eta hiri-diseinuan espezializatuta
Gastronomia	**Iwasaki.** 2023az geroztik Michelin Gidaren Bib Gourmand bereizgarria duen jatetexe algortarra
Kultura Hezkuntzan eta Balioetan	**Zirri Marra Arte Tailerra.** Kultura-bitartekaritzan eta arte-hezkuntzan egindako lanagatik, bereziki GetxoArte Eskoletan proiektuaren bidez
Zientzia eta Berrikuntza Kultura	**Maia García Verginiony.** Nazioarteko ikertzailea, fisika kuantikoaren eta material topologikoen arloan egindako ibilbideagatik, 2023an American Physical Societyk sarituta
Kultura Ondarea, Hautemangarria eta Hautemangaitza	**Itxartu Taldea.** Algortako elkarteak 50 urte beteko ditu 2026an, euskal folklorea zaintzen eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen egindako lanari esker
AixeGetxo Gaztea	**Verónica Uribe-Echevarría.** Zelulen birsorkuntzaren eta diabetesaren inguruko ikerketak egiten dituen biologo molekular eta biomedikoa. 2025ean Peter Sheehan Young Innovator Award saria jaso zuen
Ibilbide Profesional eta Artistikoa	**Galdaretxe Gozotegia.** Algortan 1970ean sortutako familia-enpresa horrek 55 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du, artisau-gozogintzaren eta tokiko gastronomia-tradizioaren aldeko apustuari eutsiz

"Ramiro Pinilla" eleberri laburren lehiaketak hamargarren urteurrena ospatuko du

2027ko otsailaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira *Ramiro Pinilla* Eleberri Laburraren X. Lehiaketan lehiatu nahi duten lanak. Getxo Kulturak bultzatutako lehiaketa honek, Pinillesca kolektiboaren proposamenetik abiatuta, egile getxotar ezagunaren oroimena gorde nahi du, baita literatur sorkuntza bultzatu ere.

Ohi bezala, bi sari emango dira, bakoitza 6.300 eurokoa, euskarazko eta gaztelaniazko idazkietarako, hurrenez hurren. Epaimahaiaren erabakia datorren urteko irailean jakinaraziko da, Muxikebarri zentroan egingo den sari banaketan. Epaimahaia literaturan ospe handia duten pertsonek osatuko dute.



Deialdiari buruzko informazio osoa getxo-kultura.eus/ramiropinilla webgunean dago eskuragarri.

Haur lehiaketa

Helduentzako lehiaketarekin batera, *Txiki Baskardo* haurrentzako ipuin lehiaketaren hamargarren edizioa ere jarri da abian, tokiko ikastetxeei zuzendua, DBHko 1. mailako ikasleen artean literatur zaletasuna sustatzeko.

Oraingoan, zenbait ikastetxetako ikasleek hartuko dute parte, eta, lehen hautaketa-fasea gainditu ondoren, finalean parte hartuko dute. Azken hori maiatzean izango da, eta parte hartzen dutenek gehienez 120 minutu izango dituzte luzera libreko kontakizun bat idazteko, Pinillaren *Andanzas de Txiki Baskardo* lanetik ateratako esaldi batetik abiatuta. Irabazleek 500 euroko txekea jasoko dute sari gisa, *Euskararen lagunak* kanpainari atxikitako tokiko lau saltokitan gehienez kontsumitzeko.

Hezetasunaren auzoak San Martin jaiak ospatuko ditu asteburuan

Asteburu honetan, azaroaren 6, 7 eta 8an, San Martin jaiak ospatuko dira Algortako Hezetasuna auzoan.

Egitaraua ostiralean, hilak 6, hasiko da, 17:00etan, kalejira batekin, eta ondoren, txikientzako diskofesta, txapel jaurtiketa txapelketa eta pilota erakustaldia, karaokea eta DJa gaztetxoentzat. 23:00etan, kontzertua: Bidean Erromeria. Egun horretan, 21:00etatik 00:00etara, alkoholari eta drogei buruzko informazioa emateko eta alkoholemia neurtzeko zerbitzua emango da; 23:00etatik 02:30era, puntu lila jarriko da (larunbatean ere bai); eta 2:00etatik 3:30era gaueko autobusa egongo da, ez baitago metro zerbitzurik.



Larunbatean, hilak 7, haurrentzako jarduerak (feria-jolas tradizionalak, tailerrak, marrazki lehiaketa...) eta igel eta tiragoma txapelketa aurreikusi dira. Herri bazkariaren ondoren, aurresku eta futbol txapelketak, hainbat tailer, zumba, dantza plaza, txorizo-jana..., Villamonteko krosa eta, 22:00etan, kontzertua Territorio Norte eta EH Sukarrarekin.

Igandean, hilak 8, lapikoko lehiaketa, azoka, Agurra Taldearen dantza jaialdia eta, arratsaldean, karate erakustaldia, Earth Songs Projecten kontzertua, nagusientzako luncha, txokolatada eta Txerritxuren erreketa izango dira.

Egitaraua: https://labur.eus/egz2skxi

Gurutzaontzien errekor historikoa

Getxoko itsas terminalak gurutzaontzien helmugako errekorra gainditu du berriro denboraldi honetan. Otsailaren 25etik urriaren 27ra bitartean, 104 ontzi iritsi ziren, aurreko ikasturtean baino 9 gehiago, eta 233.236 gurutzaontzi guztira (+%29, 2025arekin alderatuta).

Hazkunde hori jasangarritasunaren hiru zutabetan oinarritzen da: ekonomikoa, lurraldean sortzen duen inpaktuagatik; soziala, Bilbo-Bizkaiak saturaziorik gabeko helmuga izaten jarraitzen duelako; eta ingurumenekoa, 2027aren amaieran eskuragarri egongo den ontzien konexio elektrikoari esker.